


## ISEI - IVEI

**Rs1.2.2. CURRICULUM KONPETENTZIA LHko 4.  
MAILAN: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-  
KOMUNIKAZIOA**





**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

**Edizioa: 2013ko abendua**

**© ISEI-IVEI-k argitaratua**

**ISEI-IVEI-K ARGITARATUA**

Irakas-sistema Ebaluatuta eta Ikertzeako Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

**LAN TALDEA**

Araceli de Francisco

M<sup>re</sup> Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**

Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**

Eduardo Ubieta



## Rs1.2.2

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:  
Gaztelania

SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



Sarrera	4
Rs1.2.2.1 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetak bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.	6
Rs1.2.2.2 taula eta grafikoa: LHko 4. mailako ikasleek <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian</i> lortutako puntuazio zuzenen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).	7
Rs1.2.2.3 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek kompetentziaren dimentsioetan ( <i>irakurmena, entzumena, idazmena</i> ) lortutako puntuazio zuzenen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.	8
Rs1.2.2.4 taula: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetak bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.	9



## GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010 eta 2011<sup>1</sup>.

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* izan duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaizak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009, 2010 eta 2011n gauzatu ziren Ebaluzio Diagnostikoetan lortutako emaitzak dira. Ebaluzioan 250 puntuko batez bestekoa finkatu da, 50 puntuko desbiderapen tipikoa eta hiru errendimendu-maila.

Emaizak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: ikasleen sexua, kompetentziaren dimentsioak (entzumena, irakurmena, idazmena), irakasteredua<sup>2</sup>, eta hezkuntza-sarea<sup>3</sup> (geruzak), indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmalarekiko egokitasuna (jaioturtea eta irakasmala), gurasoen ikasketa mailarik altuena, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.

2009-2011 aldian, errendimendu-maila bakoitzeko ikasleen ehunekoaren bilakaera positiboa izan da maila aurreratuan (0,3 puntu) eta erdi-mailan (6,2 puntu), baina hasierako mailan jaitsi egin da (6,6 puntu).

Sexuaren aldagaiaren arabera, datuek adierazten dute nesken ehunekoa jaitsi egin dela hasierako mailan (5,5 puntu) eta maila aurreratuan (1,3 puntu), baina erdi-mailan 6,7 puntu igo dela. Mutilen ehunekoa hasierako mailan 7,7 puntu jaitsi da, baina erdi-mailan 5,7 puntu igo da, eta maila aurreratuan, 1,9 puntu. Hiru ebaluzioetan ikusten da erdi-mailan eta maila aurreratuan nesken ehunekoa mutilen ehunekoa baino handiagoa izan dela (2011n bakarrik izan da, maila aurreratuan, mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa: 0,8 puntu). Hasierako mailan mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa izan da.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek 2009, 2010 eta 2011ko ebaluzioetan *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* geruzetan lortutako puntuazio zuzenak, handienetik txikienera ordenaturik, honako hauek izan ziren: itunpeko A eredua, B eredua eta D eredua, eta gero, D eredu publikoa, B eredu publikoa eta A eredu publikoa. 2009-2011 aldiko bilakaera positiboa izan da kasu guztietan, itunpeko A ereduaren kasuan izan ezik, geruza horretan 1 puntu jaitsi baita.

*Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziaren* hiru dimentsioen bilakaera aztertzen badugu, ikasleen puntuazioak (bai neskenak baita mutilenak ere), irakurmenean eta entzumenean hobetu direla ikus daiteke, eta idazmenean puntuazio orokorra mantendu egiten dela, mutilena 4 puntu igo eta neskena 4 puntu jaitsi den

<sup>1</sup> Informazio gehiagorako: Ebaluzio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

<sup>2</sup> EAEn hiru irakasteredu daude: A eredua (irakas-hizkuntza gaztelania), B eredua (irakas-hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D eredua (irakas-hizkuntza euskara).

<sup>3</sup> EAEn bi hezkuntza-sare daude, publikoa eta itunpekoa, biak diru publikoarekin finantzatuak.



## Rs1.2.2

### Curriculum konpetentzia LHko 4. mailan: Gaztelania

SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



arren. Hiru ebaluazioetan nesken puntuazioak mutilenak baino handiagoak izan dira irakurmenean eta idazmenean. Entzumenean 2009ko ebaluazioan neskek eta mutilek puntuazio berdina lortu zuten. 2010ean neskek mutilek baino 8 puntu gehiago lortu zuten, eta 2011n mutilek neskek baino 7 puntu gehiago lortu zuten. Nesken puntuazioen eta mutilen puntuazioen arteko aldea bereziki handia izan da *idazmenean*, 2009ko ebaluazioan, neskek mutilek baino 16 puntu gehiago lortu zutelako. Alde hori murriztu egin da eta 2011n 8 puntukoa izan da.

Aztertutako aldagaien bilakaerari dagokienez, zenbait aldaketa txiki ikusten dira gurasoen ikasketak mailaren aldagaian: 2011n batxilergoa eta unibertsitateko ikasketak zituzten gurasoen ehunekoak 3,9 puntu eta 2,3 puntu igo dira hurrenez hurren. Etxeko hizkuntzaren aldagaian ere aldaketa batzuk izan dira: 2011 etxean euskaraz hitz egiten duten familien ehunekoa 5,3 puntu handiagoa izan da.

Ebaluazio diagnostikoetako erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko handiena duten ikasleen profila honako hau da: ISEK indize altua du (% 93,1), gurasoek goi mailako ikasketak egin dituzte (% 93,1), adinagatik dagokion irakasmilian dago (% 90,1), Euskadin jaioa da (% 89,2). Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila hau da: gurasoek ez dituzte bukatu derrigorrezko ikasketak (% 72,6), irakasmiliarik errepikatu du (% 70,8), etorkina da (% 80,4), ISEK indize baxua du (% 82,2). *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentziaren* kasuan, dirudienez, etxeko hizkuntzaren aldagaiak ez du eraginik.



# Rs1.2.2

## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Gaztelania



SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



### Rs1.2.2.1 taula eta grafikoak:

LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.

	Errendimendu maila HASIERA			Errendimendu maila ERDIA			Errendimendu maila AURRERATUA		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2009	<b>17,9</b>	15,8	19,9	<b>55,1</b>	56,0	54,2	<b>27,1</b>	28,3	25,9
2010	<b>19,8</b>	18,3	21,3	<b>46,4</b>	47,0	45,9	<b>33,7</b>	34,7	32,8
2011	<b>11,3</b>	10,3	12,2	<b>61,3</b>	62,7	59,9	<b>27,4</b>	27,0	27,8



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011.



## Rs1.2.2

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:  
Gaztelania


SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



### Rs1.2.2.2 taula eta grafikoa:

LHko 4. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* lortutako puntuazio zuzenen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).

	2009	2010	2011
A Publikoa	217	215	226
B Publikoa	243	250	251
D Publikoa	245	248	251
A Itunpekoa	270	278	269
B Itunpekoa	261	271	267
D Itunpekoa	249	254	256



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011.



# Rs1.2.2

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:  
Gaztelania



SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



## Rs1.2.2.3 taula eta grafikoak:

LHko 4. mailako ikasleek kompetentziaren dimentsioetan (*irakurmena, entzumena, idazmena*) lortutako puntuazio zuzenen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.

		2009	2010	2011
Guztira	Guztira	250	256	256
	Neskak	253	258	256
	Mutilak	247	253	256
Irakurmena	Guztira	250	258	255
	Neskak	255	264	258
	Mutilak	245	252	253
Entzumena	Guztira	250	247	257
	Neskak	250	251	254
	Mutilak	250	243	261
Idazmena	Guztira	250	250	250
	Neskak	258	256	254
	Mutilak	242	243	246



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011.





### Rs1.2.2.4 taula:

LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.

	Ikasle %			Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratu	
	2009	2010	2011				
ISEK	Maila baxua	14,6	15,9	<b>14,9</b>	17,8	64,4	17,8
	Maila ertain baxua	23,3	24,2	<b>24,2</b>	13,5	63,0	23,5
	Maila ertain altua	28,0	26,6	<b>27,3</b>	11,3	63,5	25,2
	Maila altua	34,0	33,2	<b>33,6</b>	6,9	56,7	36,4
Egokitasuna	Adina bat dator ikasmalarekin	93,0	91,9	<b>92,3</b>	9,8	61,1	29,0
	Adina <b>EZ</b> dator bat ikasmalarekin	7,0	8,1	<b>7,7</b>	29,2	62,7	8,1
Titulartasuna	Publikoa	50,5	50,0	<b>50,3</b>	13,8	63,8	22,4
	Itunpekoa	49,5	50,0	<b>49,7</b>	8,8	58,7	32,5
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrigorrezko ikasketak bukatu <b>gabe</b>	3,3	3,1	<b>3,8</b>	27,3	64,3	8,3
	Derrigorrezko ikasketak	13,0	12,6	<b>14,6</b>	19,0	66,0	15,1
	Baxilergoa, HZ	34,4	34,0	<b>38,3</b>	11,2	65,6	23,2
	Goi mailako ikasketak	41,0	41,3	<b>43,3</b>	7,0	55,6	37,5
Jaioterria	Autoktonoa	94,9	93,7	<b>94,0</b>	10,8	61,1	28,1
	Emigratzailea	5,1	6,3	<b>6,0</b>	19,5	64,2	16,2
Familia-hizkuntza*	Euskara	18,0	25,9	<b>23,3</b>	11,0	65,1	24,0
	Euskara <b>EZ</b> dena	81,0	69,9	<b>76,7</b>	11,4	60,1	28,5

\*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011.




# Rs1.2.2

## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Gaztelania

### Rs1.2.2.4 grafikoa:

LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.



\*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011.